



JARDUNALDIA

Informazio eta Dokumentazio Kudeatzaileen I. Bilkura:

Lankidetzaz ardatz, euskara bitarteko, herritarra helburu
Eibarren, 2015eko uztailaren 1ean

43.UDAKO IKASTAROAK 2015

INFORMAZIO ETA DOKUMENTAZIO KUDEATZAILEEN I. BILKURA.

LANKIDETZA ARDATZ, EUSKARA BITARTEKO, HERRITARRA HELBURU.

Informazioa eta dokumentazioa kudeatzen dugun profesionalen sektoreak (liburuzainak, artxibozainak eta dokumentalistak) ez du egitura sendorik, sakabanatuta eta atomizatuta dago; ondorioz, behar handia dago alor honek bizi duen egoeraren diagnostikoa egin eta etorkizuneko lankidetzeta eta elkarlanerako aukeren inguruan hausnartu eta proposamenak jasotzeko. Garrantzi handikoa da, beraz, sektore osoko profesionalak elkartzea ahalik eta iritzi gehien bildu eta ahalik eta adostasunik handienarekin etorkizuneko lankidetzeta-aukerak diseinatzeko. Euskara izango da lankidetzeta honen onuradun garbi bat.

HELBURUAK

- Informazioaren eta dokumentazioaren kudeatzaileak elkartzea bilkura baten inguruan.
- Arlo profesionalaren diagnostiko orokorra egitea: aukerak, mehatxuak, indarguneak, ahulguneak.
- Etorkizuneko elkarlaneko aukerei buruz hausnartu eta proposamenak jasotzea.

METODOLOGIA

- Batetik, gure sektoretik kanpo dagoen pertsona batek, kasu honetan, Patxi Zubizarreta idazleak, bere ikuspegia azalduko digu gure lanbideaz eta gure profesioaren inguruan duen iritziaz.
- Bestetik, bi mahai-inguru zabal antolatuta nahi izan ditugu, parte-hartzaile bakoitzak modu eskematiko eta sintetikoan bere ikuspegia eman dezan, lehen mahai-inguruan, egoeraren diagnostikoa eginez eta, bigarrenean, etorkizuneko elkarlanerako aukerak aipatuz.
- Bukatzeko, dinamizatzailearen egitekoa izango da, batetik, mahai-inguruetako parte-hartzaileek duten denbora mugatua errespetatu dezaten eta, bestetik, entzuleen parte-hartzea sustatu, beraiei iritziak eman ditzaten...

NORI ZUZENDUA

Informazioaren eta dokumentazioaren kudeaketan diharduen oro: liburuzain, artxibozain, dokumentalista...

ARGIBIDEAK

- Jardunaldiari buruzko informazio guztia web gunean dago: www.ueu.es/ikasi/udako-ikastaroak
- Izen ematea web guneetik: www.ueu.es
- Izen emate epea: maiatzaren 25etik ekainaren 29a arte izen ematea irekita.
- Prezioak eta deskontuak, web gunean ikusgai. Diru-laguntzak daude.

Oharra: eskuorri honetako informazioak aldaketak jasan ditzake, informazio eguneratua eta zehatza web guneakoa da.

ANTOLATZAILEAK

